



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Udalbatzaren osoko bilkura

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura alkateaz eta 26 zinegotzi hautetsiez osatua dago. Alkatea da bilkura-burua. Ohiko osoko bilkurak hil bakoitzaren lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean hasita, eta hil bakoitzaren hirugarren ostiralean, 9:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten.

2015ean, **18 bilkura** egin ziren. Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira (www.pamplona.es), eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago. Maiatzeko hauteskundeen ondoren, Udalbatza osatzeko bilkura egin zen, ekainaren 13an.

Bilkurak	2011	2012	2013	2014	2015
Ohikoak	10	15	12	17	9
Bereziak	7	3	7	1	8
Eratzaileak	1	-	-	-	1
GUZTIRA	18	18	19	18	18
Hartutako erabakiak	208	247	241	189	168



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala